

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Barazkiak goresteko XX. jardunaldiak babestu ditu

Esparza kontseilaria eta Carlos Erce Turismoko zuzendari nagusia Iruñean egin den programaren aurkezpenean izan dira.

Viernes, 25 de abril de 2014

Nafarroako Gobernuak Barazkiak goratzeko XX. jardunaldiak babestu ditu. Gaurtik hasita maiatzaren 4ra arte egingo dira Erriberako hiriburuan. Jardunaldien aurkezpena gaur goizean izan da Iruñean, Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren Interpretazio Zentroan (Gurbindo etxea).

José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak eta Carlos Erce Turismoko zuzendari nagusiak nafar guztiak Tuterara gerturatzerara gonbidatu dituzte, 10 egun hauetan Nafarroako barazkiez gozatu eta sektorea sustatzen laguntzeko.



Barazkiak goresteko jardunaldien antolatzaileak Luis Casadorekin, Esparza kontseilariarekin eta Carlos Ercerekin.

Ekitaldian, Luis Casado Tuterako alkateak eta Rafael Remírez Orden del Volatín delakoaren lehendakariak [programaren](#) xehetasunak aurkeztu dituzte. 150 ekitaldi baino gehiago izango dira, esate baterako, lehiaketa gastronomikoak, sukaldeko erakustaldiak, dastatze herrikoiak, jardunalduek eta barazkiei buruzko tailerrak, baita kontzertuak ere, eta hiriko toki erakargarri nagusienetara bisitak egingo dira, adibidez, katedrala, Monreal dorrea, San Adriángo markesaren jauregia eta Almirantearren etxea.

Igandea, maiatzak 4a izango da jardunaldien egun nagusia, Orden del Volatín delakoaren kapitulu orokorra ospatuko da. Aurten Carlos Soberak irakurriko du pregoia, eta Orden del Volatín-eko ohorezko jaun izendatuko dute. Horrez gain, Barazkien gorespenaren saria emango zaio Diario de Navarra egunkariari eta Ordenaren ohorezko bereizgarriak jasoko dituzte Tuterako Cáritasek eta Beasaingo Odolki Kofradiak.

BEGen % 7,15 hartzen duen sektorea

Esparza kontseilariak nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien industriaren sektoreak ekonomikoki eta sozialki duen garrantzia azpimarratu du. Sektorea funtsezkoa da Nafarroarentzat, izan ere, BEGren % 7,15 hartzen du, eta nekazaritzako elikagaien industria sistema

industrialean garrantzi handiena duen hirugarren jarduera da. Kontseilariak gogorarazi duenez, ureztatzearen alorreko 1.300 enpresa eta nekazaritzako 24.000 ustiategi daude.

Gainera, kanpoko merkataritzaren ikuspegitik, 2013an 875 milioi euroren balioa izan zuten nekazaritzako produktuak esportatu ziren (esportazio guztien % 11,84), hau da, aurreko urtean baino % 12,3 gehiago (2012an, 779 milioi euroren balioko produktuak esportatuzan ziren). Hau da, nekazaritzako elikagaien sektoreko esportazioak Nafarroako esportazio guztiak baino 6 aldiz gehiago hazi ziren (oro har % 2 hazi ziren esportazioak).

Ibilbide gastronomikoa

Bestalde, Carlos Erce Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiak gogorarazi du Nafarroako Gobernuak sektorea babestu nahi duela turismo gastronomikoa bultzatuta. Horretarako, gastronomian oinarritutako produktu turistikoen eskaintza berria sortu du.

"Navarra, Reyno de la buena mesa" ibilbidea Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak antolaturikoa da, INTIA-Reyno Gourmet markarekin, Nafarroako Ostalaritzako Enpresarien Elkartearekin eta beste talde batzuekin elkarlanean, eta gure gastronomia Komunitateko alde erakargarri nagusienetako baten gisa agertzen du.

Lau kategoria handiren inguruan dago antolatuta: jatetxeak eta tabernak, jaiak eta ekitaldiak, Nafarroako produktuak, sari eta opariak. Jatetxe eta tabernen kategorien barruan, hiru maila daude: goi-mailako eta egile-sukaldaritzako jatetxeak; sukaldaritza tradizionalakoak, erretegi eta sagardotegiak ere barne hartuta; eta pintxoak, dastatzeko leku eta ibilbiderik onenekin.